

661 klik

KARLOS
CID
ABASOLO

 BOOKTEGÍ





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

KARLOS CID ABASOLO

661 klik

HITZAURRE BERANTIARRA

Hitz eman nion Karlosi hitzaurre bat paratuko niola, baina azkenean ez nintzen hartaratu. Nagitasuna ez ezik, ezintasuna ere baneukan lepoaldean. Urteetan metatutako zentzazioa, hau da, hitz gutxi batzuk bildu eta paperean ezartzea oso nekagarri izango zela eta etekin gutxikoa, gainera. Tira, etekin kontu hori munta gutxikoa da, etekinak nonahi atera nahi diren garai honetan bizi izan arren. Baina nekea benetakoa zen, urteen zama ez ezik, hainbat gorabeheraren pisua ere bai.

Egia esan, ezer ez idazteko aitzakia ere banuen. Zein ederra den isiltasuna, orri zuria, zeru urragabea. Baina noizean behin ederrak dira halaber kardantxiloaren txioak, tinta txinatarrez izkiriaturako pergamu bat edota enara saldo baten akrobaziak airean. Panta kairos kala, esaten zigun gure latin-grekerazko irakasleak, gauza guztiak eder dira denbora egokian gertatuz gero. Kontua da denbora egokia zein den asmatzea, denborarekin borroka etengabea ari garen garai hauetan.

Itxuraz, une egokia zein den guk geuk erabaki behar dugu, bestela inoiz ez zaigu gertatuko. Apustu egin behar oraindik ere zer edo zer esan ahal dugula. Bada, burura datorkidan irudi batekin hasiko dut.

Irudikatzen dut Karlos kafea hartzen Praga aldean, marmol itxurazko azala duen mahai batera eserita, poema bat zertzen, Kafkaren lehengusina batekin kafea hartzen duen bitartean. Edota, beharbada hurbilago, Bilboko kafetegi batean, euskararen aldeko hormirudiz betetako areto batean. Arestiren oinordeko batekin kalakan dabil, euskara batuaren aferan lapurtar klasikoaren ildotik joatearen abantailak eta mugak aipatuz. Eta bitartean, paper txatal bat hartu eta poema baten lehen lerroak izkiriatu ditu, beti ere zorroan eramango duen liburu baterako.

Behin eta berriro idaztea liburu bera izan liteke setatiaren kemena edo baikorraren ausardia. Queneuaren estilo ariketen ildotik doan saio bat egitea, beste barik. Edota Borgesek asmatutako Pierre Menard idazlariaren ekinaldiari jarraitzea, Kixotea berriz idazten hasi zela. Alde horretatik, Karlos liburu berbera idazten dabil, Youtubeko etenbako loop batean bezala. Kamera bat atzean, ordenagailuaren aurrean etengabe idazten, aldi berean idazten ari dena Interneten bidez zabaltzen, zuzen-zuzenean.

Heraklitoaren esanari kasu eginda, bi aldiz ez gara bainatuko ibai berean. (Egia esan, Harkaitz Canok kontrakoa frogatu zuen, bizikleta bat zela medio). Dena den, bihurri dezagun apur bat esakune hori Karlosek idatziak berriz irakurtzekotan. Izan ere, Aizkorak eta Laztanak berriz ere esku artean izanda, irakurraldia bestelakoa izan da. Besteak beste, testua idatzi duena eta gu geu ere bestelakoak izango garelako. Zaharragoak eta, hala nahi genuke, zuhurragoak. Une bakoitzean iragana gara, azken txapelketan irabazle suertatu diren heroiak zein azken borrokaldian zirrikitu batetik ihes egin duten koldarrak.

Karlosen idazkiak berriz hartu eta nabaritu dut nola aldatzen diren neure aldaratearen arabera. Edota lehen erreparatu ez diodan ñabardura bat agerian ikusi dut, hala nola, alkandora zuriaren paparrean distiratzten den ketchuparen narrioa. Arin-arin igarotzen zaigu bizitza xehetasunei kasurik egin gabe, gero eta xehetasun gehiago metatzen zaizkigulako. Oroimena ahula da, hutsune asko ditu eta nekez gogoratzen ditugu lehen ikusitako edo irakurritako pasarteak.

Ezin dugu ezer kontatu, behin kontatuz gero, idazteko premiarik ez dugulako. Egia da, kontu batzuk kontatu egin behar dira, idatzi beharrean. Baina beste kontu batzuk idatzi egin behar dira, kontatu beharrean. Areago, kontu batzuk behin eta berriro idatzi behar dira. Kontua da lekedatsu izango zaizkigula kontu kontari datozkigunak, behin eta berriro erretolikarekin belarriak zigortzera. Amultsuagoak dira liburuak, kontu horiek behin eta berriz aditu nahi izanez gero.

Eta kontuak aspergarri eginez gero, liburua itxi eta kafe bat hartzera joan. Beharbada, hantxe aurkituko dugu Karlos poema bat zertzen dabilela.

Javi Cillero, 2024ko apirila.

HIRUGARREN HARRI-KOSKORRA

Booktegiko arduradun agurgarri hori:

Duela bi urte *Laztanak eta aizkorak* nire bigarren poema liburua plazaratzeko mesede ezin ordainduzkoa egin zenidan. Bada, hirurogei urteko adinera iristeko urte bakarra falta zaidanez, uste dut badela garaia euskal literaturari neure hirugarren harri-koskorra ekartzeko. Izan ere, ez dut [Literaturaren Zubitegian](#) bi obra soileko euskal idazle gisa agertu nahi. Hori dela eta, honekin batera bidaltzen dizut ene lehenengo prosa lana, *661 klik* deritzona, mikrorrelatotik ez ezik, biografiatik, gutun-generotik, saiakeratik eta ikus-entzunezketatik ere baduena.

Booktegin argitaratzeko modukoa irudituko zaizulakoan agurtzen zaitut.

KCA

256 KEINU HEROIKORI GORAZARRE

Sartu zinen Euskal Herriko liburu-denda batean, abiatu zinen euskal poesiaren sailera, asmo hori buruan zeharkatu behar izan zenuen lokal osoa, bukaeraraino, azken zokondoraino, eta han, Harri eta herri eta tropelekoak hautsa pilatzen zeuden apalategiko azken-azken apaletik Keinu konplizeak hartu, zabaldu eta [azken poemarekin](#) egin zenuen topo, zeinean aitortzen bainizun maite zintudala, zuregatik emaztea eta alaba uzteko prest nengoela baldin eta egiten bazenuen poema liburu hori erosteko keinu heroikoa, zeina egin baitzenuen minutu batzuen buruan.

661 KLIK HEROIKORI GORAZARRE

Sartu zinen Booktegi webgunean, ezkerreko menuko hamazazpi sailetatik hamaseigarrena aukeratu zenuen, poesia, alegia, zeinak saiakera (betiereko faroltxo gorria) baino ez baitzeukan beherago. Arakatu behar izan zenituen titulu guztiak, azkeneraino, eta bertan topatu zenuen [Laztanak eta aizkorak](#), eta han aitortzen ez nizun arren maite zintudala eta zuregatik emaztea eta alaba uzteko prest nengoela baldin eta egiten bazenuen poema liburu hori deskargatzeko klik heroikoa, bada, birritan pentsatu gabe egin zenuen.

NAHITAEZ

Joxemari egunero joaten da Zumaiaiko hondartzara, eta, gaur, hara non aurkitu duen itsas-bazterrean botila bat, gazteek hondartzako parrandetan edonon (zaborrontzian izan ezik) botata uzten duten horietako bat, pentsatu du. Eta hasi da haietaz gaizki esaka. Beraiek ordaintzen ez badute, gurasoek ordaindu beharko lukete isun handi bat, seme-alabek halakorik errepika ez dezaten, esan du ahapeka eta purrustaka.

Baina Joxemarik ohiko bakarrizketa hori goitik behera moldatu behar izan du botilaren edukiaz ohartuta. Despedida-mezu bat, urtetan lanean aritutako batena. “Nahitaez dut izena. Lanetik bidali berri eta urte luzez errentapean bizi izan nintzen etxebizitzaren alokairua ordaindu ezin nuenez, etxejabeak, auzitegira joan eta, etxegabetze prozesua has zedila eskatu zuen. Handik hamar hilabetera (hamar segundo iruditu zitzaizkidan hamar hilabetera), etxejabea, prokuradorea, epaitegiko funtzionarioa eta hamar polizia bertaratu ziren ni etxetik bidaltzeko. Inguruan, etxegabetzeen kontrako plataformarik ez, bizilagun solidariorik ez, auzo errukiberarik ez, hedabideetako berriemailerik ez, telebistetako kamerarik ez. Negarrez utzi nuen neure urtetako etxe hori.” “Eta, dirudienez, baita bizidun kondizioa ere”, esan zuen bere artean gupida zer den ez zekien Joxemarik.

Handik egun batzuetara, hedabide eta sare sozialen bidez jakin du etxearen jabeak edonon ageri den influencer ospetsu bati alokatu diola etxebizitza: Baialabai du izena.

Zalantza sortu dio idazleari mikrorrelato honek, bi erreferentzia urte gutxitan zaharkiturik geratzeko arriskua ikusten baitu. Izan ere, urte gutxiren buruan ez da izango agurerik Joxemari izena duenik (Joxemari guztiak hilda egongo dira ordurako), eta bai ala bai esapidea desagertuta egongo da ahozko euskaratik (idatzizkoan ez da sekula onartua izan).

Eta, birritan pentsatu gabe, klik egin dio supr teklari.

DENBORAREN NEURRIA

Kuterra, Larrialdietara, bertan zenbait ordu, edo zenbait egun, plantan ohe libre bat egon arte, plantara (noizbait ohe librerik balego bertan, gerta bailiteke ez egotea eta fase hau saltatu behar izatea), bertan zenbait egun, Ume eta Nerabeen Psikiatria Pabiloian (UNPP) plaza libre bat egon arte, publiko batean edo, bestela (eta ia ziurki), itunpeko batean, UNPPra, bertan ahalik eta egun gutxien, irizpide bakartzat itxaron zerrenda hartuta, Eguneako Ospitalera (EO), bertan egun gutxi, kuterra, Larrialdietara, bertan zenbait ordu, edo zenbait egun, plantan ohe libre bat egon arte, plantara (noizbait ohe librerik balego bertan, gerta bailiteke ez egotea eta fase hau saltatu behar izatea), bertan zenbait egun, Ume eta Nerabeen Psikiatria Pabiloian (UNPP) plaza libre bat egon arte, publiko batean edo, bestela (eta ia ziurki), itunpeko batean, UNPPra, bertan ahalik eta egun gutxien, irizpide bakartzat itxaron zerrenda hartuta, Eguneako Ospitalera (EO), bertan egun gutxi, kuterra, Larrialdietara, bertan zenbait ordu, edo zenbait egun, plantan ohe libre bat egon arte, plantara (noizbait ohe librerik balego bertan, gerta bailiteke ez egotea eta fase hau saltatu behar izatea), bertan zenbait egun, Ume eta Nerabeen Psikiatria Pabiloian (UNPP) plaza libre bat egon arte, publiko batean edo, bestela (eta ia ziurki), itunpeko batean, UNPPra, bertan ahalik eta egun gutxien, irizpide bakartzat itxaron zerrenda hartuta, Eguneako Ospitalera (EO), bertan egun gutxi, kuterra, Larrialdietara, bertan zenbait ordu, edo zenbait egun, plantan ohe libre bat egon arte, plantara (noizbait ohe librerik balego bertan, gerta bailiteke ez egotea eta fase hau saltatu behar izatea), bertan zenbait egun, Ume eta Nerabeen Psikiatria Pabiloian (UNPP) plaza libre bat egon arte, publiko batean edo, bestela (eta ia ziurki), itunpeko batean, UNPPra, bertan ahalik eta egun gutxien, irizpide bakartzat itxaron zerrenda hartuta, Eguneako Ospitalera (EO), bertan egun gutxi, kuterra, Larrialdietara, bertan zenbait ordu, edo zenbait egun, plantan ohe libre bat egon arte, plantara (noizbait ohe librerik balego

bertan, gerta bailiteke ez egotea eta fase hau saltatu behar izatea), bertan zenbait egun, Ume eta Nerabeen Psikiatria Pabiloian (UNPP) plaza libre bat egon arte, publiko batean edo, bestela (eta ia ziurki), itunpeko batean, UNPPra, bertan ahalik eta egun gutxien, irizpide bakartzat itxaron zerrenda hartuta, Eguneko Ospitalera (EO), bertan egun gutxi, kuterra, Larrialdietara, bertan zenbait ordu, edo zenbait egun, plantan ohe libre bat egon arte, plantara (noizbait ohe librerik balego bertan, gerta bailiteke ez egotea eta fase hau saltatu behar izatea), bertan zenbait egun, Ume eta Nerabeen Psikiatria Pabiloian (UNPP) plaza libre bat egon arte, publiko batean edo, bestela (eta ia ziurki), itunpeko batean, UNPPra, bertan ahalik eta egun gutxien, irizpide bakartzat itxaron zerrenda hartuta, Eguneko Ospitalera (EO), bertan egun gutxi, eta zaldiko-maldikoaren zazpi bira horien alferrikakotasuna egiaztaturik, egonaldi ertaineko ospitalera (EEO, ez hain aspaldiko garaietan eroetxe edo zoroetxe –euskalkiaren arabera– deitzen zitzaion horretara, zeina, kasu askotan, hirurehun, laurehun, bostehun... edo bi milako kilometrora baitago bertan ingresatutako ume edo nerabe gaixoaren bizilekutik), hamar hilabeterako gutxienez.

Biziki gorroto dut hamar hilabetekoari “ertaina” adjektiboa jarri ziona. Baldin eta ume eta nerabeen buru-gaitzetatik aberastutako enpresen biltzar horietako batean topatzen baduzu hizlari, entzule edo koktelaren gozatzaile, esaiozu, irakurle, biziki gorroto dudala. Hamar hilabetek 25.920.000 segundo dituela. Ertaina inondik inora.

EBAKIPUNTUA

Galdutako bi arima gara arrainontzi batean igeri gabiltzanak.

Pink Floyd

Babelgo dorrean gertatutakoa ez zunan hainbesterako izan. Hala pentsatu ninan nik elkar ezagutu genuenean.

Hik milaka hizkuntza jakin, nik bi eta libra erdi. Eskerrak inkomunikazioa gaintitu genuen [ebakipuntu bat](#) topatu genuenean.

EZ HAIN ARROTZA

Bada hari mehe ikusezin bat oharkabeen guk bizi izan gabeko geure iraganarekin lotzen gaituena, hala nola gure arbasoen mintzoarekin, hizkuntza hori arrotz gertatu arren.

A.O.-k, (bidenabar esanda, alabaren bitartez), zorrotz galarazi dit inizial horien atzean lubakitzen diren izen-deiturak neure irakurle ugariei jakinaraztea, inizialen aldeko hautu horrekin datu-babesa bermatuz eta, aldi berean, bere izena eta, ondorioz, bere izana partzialki ukatuz (alboko kalteak).

Harira etorritz, A.O. Larache edo Al-ʿAraish herrian (hobetsitako hizkuntzaren arabera) jaio zen, protektoratu espainiarraren garaian. Bere bizitzako urte gehienak Madrilén (Espainia) eman ditu, hasierako itsasomina gainditurik bertan gozo eginda.

Aitaren aldetiko aitona Palentzia hirian (Gaztela-Leon, Espainia) munduratu zen, euskaratik berrehun eta hogeita hamar kilometrora. Aitaren aldetiko birraitona, aldiz, Debakoa (Gipuzkoa, Euskal Herria) zuen, euskaldun petoa. Eta hara non, duela bi urte, A.O. Madrilgo (Espainia) bere etxeko salan atsegin handiz telebistari begira zegoelarik, ustekabeen sortu zen Larache edo Al-ʿAraish herriko (hobetsitako hizkuntzaren arabera) birbilobaren eta birraitona debarraren arteko konexio magikoa, odol-lotura.

Ari ziren pantailan Espainiako (Espainia) errege emeritu delako baten ibilerak, zeintzuen berri ordura arte ezin baitzitekeen jendaurrean eman, banan-banan eta zehatz-mehatz aletzen, sosak gora, sosak behera, maitaleak gora, maitaleak behera, eta bat-batean sortu zen aurreko paragrafoan aipatu konexioa: A.O.-k, aparatu katodikoari sorginduta bezala beha, maistraki ahoskatu zituen Aitorren hizkuntza zaharrean gertatu zirenez euskaratu behar ez ditudan hitzok:

– Monarkia kanpora.

JIM

Audio-kaseten garaian (Hegoaldean, “zinten garaian”) artisau lana zen kanta bat hamaika aldiz entzuteko modua sortzea. Pletina bikoitzean zinta orijinala eta hutsa (“birjina” deitzen genion orduan) sartu eta, zinta hutsean kanta behin grabatu, birritan, hamaika aldiz, eta, hala, hamaika aldiz entzun, hamaika aldiz dantzatu dantza ezin lotuagoan, supazter txokoan, María del Mar Bonet handiaren [Jim](#) doinu gozoaren arrimuan.

Adin aldeagatik izan ez balitz...

Berehalako bizi-helburuetan bat ez gentozelako izan ez balitz...

AITA-ALABAK

Laurogei urte eta hamaika hilabeteko aldea. Udalerri berean. Bi pelotoi: matxinoz osatua bata, zelula zoroz bestea.

Ez zuten elkar ezagutu, ez zieten elkar ezagutzen utzi, eta, halere, ezin zuten gehiago ekar maitatu.

Belardian etzanda bata, 1938an, bakarrik; ohean etzanik bestea, 2019an, belardiko hilotzaren bilobez eta birbilobez inguratutik.



Alberto Barandika

IZENGOITIAK (I)

Norena naiz?

Izuarena, zeinak hartzen bainau
atzamar zeharrargietan.

Lorategi itzaltsuko untxitxoarena,
zeinak usaimena trebatzen baitu.

Jíři Orten

Karel Jílek, Václav Jílek, Jíři Jakub, eta, batez ere, Jíři Orten izengoitietan lubakitutako Jíři Ohrestein poeta txekiar judua, joan den mendeko berrogeiko hamarkadan, protektoratuaren garaian, eta hogeita bi urte zituela (HOGEITA BI!) anbulantzia batek (ANBULANTZIA BATEK!) azpian harrapaturik hil zen.

Adinak, naziek eta anbulantziek ez zioten poeta gorenetakoa izatea eragotzi.

Jíři: txekiarrez gain, Mercedes Sosak eta beste gutxi batzuok soilik zuzen ahoskatzen dakigun izena.



OSPITALEKO KAFETEGIAN

Edurne ospitalean sartu zen enegarren odol analisia egitera. “Tira”, pentsatu zuen, “hemen nagoen bitartean, ez nagon etxean telelana egiten behinik behin”, esan zuen bere artean. Analisiaren ostean, ospitaleko kafetegian sartu eta bertan eman zuen ordu erdi eskas baina onuragarria. Jarraian, ospitaletik irten eta autobus-geralekura egin zuen mantso-mantso. Geralekuan eseri eta alabari bidali zion audio bat whatsapp bidez:

- Kaixo. Ba... hara, ikusten ari naiz zure bideo-dei bat dagoela goizeko ez dakit zer ordutan, ez naiz enteratu, tira, ba, hemen nago, autobusaren zain, hamabost minuturako, kar-kar, ze ondo, jada egon ninteke etxean, tira, kontua da analitika egin ondoren ospitaleko kafetegira joan naizela gosaltzera, baraurik negoen-eta. Kafea eta txokolatezko palmera hartuz berdindu nahi nuen gosea. Eta ilaran nire aurrean zegoen emakumea, atso horietako bat, ene bada ta ni, zergatik dira horrelakoak?, nik ez dut uste horrelakoa naizenik, porque me horroriza, ez dut uste horrelakoa izango naizenik, ze inoiz horrelakorik egin ez badut, ez naiz orain izango hain nekagarria, tira, ez orain, baizik zahartzen naizenean, ziur nago ni ez naizela horrelakoa izango, baina... hara non atsoak kafesne bat eskatu duen, zerbitzaria kafesnea jartzen hasi zaio, eta esnea botatzear zegoenean, atsoak: “laktosarik gabea”, eta badoa zerbitzaria laktosarik gabeko esnearen bila, eta atsoak: “ez didazu galdetu gero”, nik uste dut laktosarekin arazoa duena dela aurretik abisatu behar duena horrelakorik gerta ez dadin, baina tira, bale, orduan zerbitzaria esnea berotzera joan da, eta makinan horretan ari zenean... badakizu nolako zarata egiten duten horrelako makinek, eta, gainera, makina ez zegoen aurre-aurrean, baizik pixka bat eskuinaldera, eta han zegoenean, hara non diotson atsoak, bere atso-ahotsarekin: “mesedez, ez berotu gehiegi”. Eta nik pentsatu: “tipoa ez dun enteratu, ze, logikoki, kafetegi handietan egoten den zarata horrekin, esnea berotzeko makina horiekin, ez dun enteratu ni de coña”, eta pentsatu dut: “nolatan ba ez dio lehenago esan?”. Ba, horixe, zerbitzaria esnea berotzen eta berotzen, berotze ikaragarria, egia esan, tira, irakiten, badator beste gizon bat, beste zerbitzari bat, eta atsoari esan: “zer behar duzu? Kaferako esnerik?”, ze, jakina, kikan kafea baino ez zegoen, eta atsoak: “ez, zure lankide hura jada berotzen ari zait esnea, baina esan diot asko ez berotzeko, eta, halere, han dabil, berotu eta berotu”, eta bazetorren beste

zerbitzaria esne-pitxertxoa eskuan, eta badiotso atsoari: “andrea, zuk ez didazu ezer esan, laktosarik gabeko esnea eskatu didazu, ni joan egin naiz eta zuk ez didazu ezer esan”. “Bai, esan dizut, esan dizut, adi egon ez bazara, ez da nire errua izan, baina bai, esan egin dizut”. “Tira, nik bi esneetatik botako dizut, hotzetik eta berotik, epel egon dadin”. Eta horrelakoak dira atsoak. Baina kontua da, emakume hori baino lehen, ze luzaro egon behar izan dut itxaroten, atera kontuak, nik neure kafea eskatu ahal izan baino lehen (ze kafetegi hori autozerbitzu modukoa zen), jada palmera erdia jana nuela, eta, beraz, ordaintzerakoan, esan diot: “palmera osoa zen, e?, baina erdia jan behar izan dut, izan ere, hain nengoen gosetuta...”. “Bai, bai, erraz imajina dezaket, ze emakume hori baino lehen, laukote bat egon da, erdi ijitoak, nik uste, ijito osoak ez baziren, ijitoak, bi emakume eta bi gizon, hara, zer ez zuten haiek eskatuko, denetik eskatu dute, de to, eta kutxazainak (ez nago ziur, ze urruti samar zeuden) behar baino gehiago kobratu nahi omen zien otarteko bategatik, eta haiek, egunero hemen ibiltzen direnez, primeran zekiten otartekoaren prezioa, jakina, kutxazainak baino askoz hobeto, eta egundokoa antolatu dute: engainatu nahi omen zituela... bere lana egiten ez bazekien han ez egoteko...eta... kar-kar, oso... interesgarria izan da nire gosaria, eta, tira, nolatan ez naute autobusaren zain nagoen bitartean ere entretenitzen? Eta horixe da kontatu nahi nizuna, laztana”.

Alabak, audioa entzun ostean, tik-tok bat egiteari ekin zion, amak bazkaltzeko zer jarriko zion bere buruari galdetzeaz bat.

KAFE ESEKIA (I)¹



Pragako taberna baten izenak
"Kafe esekia" esan nahi du.
Antzina, norbaitek bertan bat
hartu eta bi ordain zitzakeen.
Halaber, norbaitek "ba al dago
Kafe esekirik?" galdetu eta,
baiezkoan, har zezakeen.
Gorroto dut Karitatea, baina
maite dut Kafe esekia.

Karlos Cid Barrio

¹ Berria egunkariko paperezko edizioan argitaratutako bertsioa (2020-7-8).

KAFE ESEKIA (II)²



Kaixo, E.:

Mendeak dira elkarri postalik bidaltzen ez diogula, eta bada garaia chitura onak berreskuratzeakoa.

Abenduan egin nuen Pragarako bidaiaren batekoa da postal hau. Tabernaren izenak "Kafe esekia" esan nahi du. Antzina, norbaitek bertan bat hartu eta bi ordain zitzakeen. Halaber, norbaitek "ba al dago kafe esekirik?" galdetu eta, baietzkoan, har zezakeen.

Gorrito dut Karitatea, baina maite dut kafe esekia. Elkarri postalak bidaltzen genizkion garaian zu maite zintudan beste edo are gehiago.

Karlos

² Berria egunkariko webgunean argitaratutako bertsioa (2020-7-8).

DENA DEN

*Eta, agian,
denborari eta grabitazioari
garaitzeko
modu onena da
murruen gainetik pasatzea
aztarnarik utzi gabe,
Itzalik utzi gabe.*

Marina Tsvetaeva

Gaitza da berrogeita hamar urteko adinera iristea ezbeharrak bata bestearen gainean pilatzen zaizkizunean. Hala pentsatu bide zuen Marina Tsvetaevak Elaburga herrixkan deserriraturik urkatu omen zenean.

Zaila da dirudun jaio arren alaba txikia umezurztegian gosez hil zaizula onartzea. Nekeza da senarra eta beste alaba espioitza delitua egotzita torturatu dituztela asimilatzea. Dena den, Marina Tsvetaevak amodioaren kolore orotarikoak gozatu zituen (bere garairako heroitasun nabarmena), poesia idatzi zuen (egokitu zitzaien denborarako ausardia), eta poliziek atxilo egin eta galdekatu zutenean, bere poesiaren itzulpenak irakurri zizkien erantzun bakar gisa.

Gaitza da berrogeita hamar urteko adinera iristea ezbeharrak bata bestearen gainean pilatzen zaizkizunean. Baina are gaitzagoa da ezbeharrak gorabehera bizitzari eutsi nahi eta, Elaburga herrixkan deserriraturik, suizidioz moztutako hilketa pairatzea.



GÚMER (I)

Sukaldean zutik gosaltzeak baditu abantailak, nahiz eta ohitura hori maiz gaitzetsi didaten. Gosaltzeko modu horretaz damutzeaz nengoenean gertatu zen miraria: ogi txigortua gurin eta marmeladarekin eta kafesnea hartzeaz bat, leihotik begiratu eta bizilagun kuttuna ikusi nuen, laurogeita bost urte, tripaundi, Olentzero, Inés emaztea besotik helduta zeramala, ataritik furgoirako bidaia egunerokoan.

Inés beti ere dotorea furgoirara igo eta nik so egin nien senarraren begi beti ere maiteminduei.

Ogi txigortua busti zitzaidan, baina, estreinako, ez kafesnera jausita.



GÚMER (II)

Baudelaire irakurri dudala demostratu nezake hitzotan, itsasoetako albatros txori handiak dibertimendu hutsez ehizatzen dituzten marinel gazteei erreferentzia eginez, Dickinsonen eraginpean idazten dudala txilarren begiak ikusi ditudalako itxurak eginez, Mistralen obra osoa irakurrita daukadala azuzenak diruditen musuak lerrootara garraiatuz.

Baina ez. Inondik inora ez.

Zilegi bekit esatea sukaldeko leihotik begira nagoelarik sentitu dudala literaturaren harra, inoiz literatura lanik irakurri gabeko norbaitengan haragiztaturik.

GÚMER (III)

Bazen behin Itsaso izeneko ume moko bat arropa esekitzeko pintza batean amaren izena txukun idatzi eta ondoan bihotz bat are txukunago marraztu zuena.

Urteak eman zituen amak pintza hura ikusi gabe, harik eta bere burutik ere aienatu zen arte, sekula existitu ez balitz bezala.

GÚMER (IV)

Telefono hotsa. Ahots ezagun bat. Gaztelaniaz. (Honatx itzulpena, Ipar Euskal Herriko ene irakurleek entelega dezaten):

“Egun on, Karlos, igo nire etxera, zerbait daukat-eta zuentzat”.

Igo naiz, eta, txintik esan gabe, pintza bat eman dit paper-mutur bat oratuta daukana.

Ettxera jaitsirik, irakurri dut paperak (gaztelaniaz) dioena eta nik, Iparraldeko irakurle maite horri, musutruk euskaratuko dizudana: “Hemen bukatzen da Lydia izeneko pintzaren istorioa, zeinak egun batez ekin baitzion arropa esekitzeko sokatik kalera erori eta, mundu zabalean barrena bidaiatzeari, harik eta hamargarren pisuko bizilagun eskuzabalak aurkitu eta jabeari itzuli dion arte”.

GÚMER (V)

Sukaldean zutik gosaltzeak baditu abantailak, nahiz eta ohitura hori maiz gaitzetsi didaten. Gosaltzeko modu horretaz damutzeaz nengoenean gertatu zen miraria: ogi txigortua gurin eta marmeladarekin eta kafesnea hartzeaz bat, leihotik begiratu eta bizilagun kuttuna ikusi nuen, laurogeita zazpi urte, tripaundi, Olentzero, Inés emaztea besotik helduta zeramalako imintzioa eginez, ataritik furgoirako eguneroko bidaia aspaldikoetan legez.

Ogi txigortua busti zitzaidan, baina, bigarrenenez, ez kafesnera jausita.



HITZ GUTXIKO GIZON ONESTA

Intelektualitatearen talaiatik, Salamancako errektoretzatik, militar faxisten matxinada bere hitz-jario joria baliatuz hauspotu zuenari, zeukan izena zeulakarik ere, hiriko seme kutuna eta gainerako lausenguak oro kentzeko ere duintasuna behar da gero.

Ernesto Erkoreka jauna Bilboko historiako alkate isilena izan zen. Aginte-makila izan zuen garai zailetan, bere mundu-ikuskerarekin bat ez zetozenei lagundu zien. Sasoi ilunetan, bere mundu-ikuskerarekin bat ez zetozen zenbaiten lekukotzek (bere salatzailearena barne) babestu zuten.

Ernesto Erkoreka jauna, joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadan, laurogeita hamaika urte zituela (LAUROGEITA HAMAIKA!), pistolek Bilboko alkatetza utzarazia izan eta hogeita bat urtera, tranbia batek (TRANBIA BATEK!) jota hil zen.

Garrantzitsua da erraz ahoskatzeko moduko izen bat edukitzea. Baina are garrantzitsuagoa onesta izatea.



JAKINTZA

Hirugarren liburu hau idazten ari nintzela jakin bezain fite tematu zen Miren Josune kosta ahal kosta, leher edo zaparta agertu nahi zuela bertan.

Haren nahiari (ohi bezala) men eginez, eta haren izena euskalduntzeko baldintza negoziæezinpean, hitzok eskaintzen dizkiot honako hau esateko: ni baino amiñi bat lehenago hilko dela noizbait, eta donokian dagoelarik inskripzio hau zizelkatuko dudala haren hilarrian:

Hemen datza Miren Josune mitiko eta orojakilea

IZENGOITIAK (II)

“Idatzi dinat ipuin bat pintzari buruz”, esan diot. Irakurri egin diot eta berak, barre-zantzoka: “Ez al duk gogoratzen zer esan nian pintzaren kontu hori gertatu zenean? Idazkera hura ez zela Itsasorena, pertsona nagusi batena baizik, eta, hori gutxi balitz bezala, eta hik ongi dakianez, Itsasok sekula ez didala Lydia izenez deitu, Lili edo Lolo izengoitiz baizik”.

KAFE ESEKIA (III)

Aupa, hi:

Irakurri diat atzo Berrian argitaratu ziaten postalea-edo. Zorionak, asko gustatu zaidak (bainaren esperoan ni), interesgarria duk hor kontatzen duana (bainaren esperoan ni), baina esan behar diat ezertaz idatzi aurretik ondo dokumentatu beharra dagoela lotsagarri ez geratzeko.

Aipatzen duan usadio hori ez duk soilik Pragako taberna horrena eta, areago, ez zuan han sortu, Napolin baizik, zehaztu gabeko garai batean. Iturburuak ez dituk horretan ados jartzen: XIX. mendekoa dela ziotek batzuek. XVIII.ekoa omen duk, beste batzuen aburuz. Agian XVII.ekoa. Edo Erdi Arokoa.

Gainera, hik gauza bitxitzat kontatzen duan hori azken hamarkadan zagok mundu zabalean barreiatua, eta izena duenak izana duenez, hik txekieratik itzulita kafe esekia deitzen dioan horri caffè sospeso deitzen zaiok Italian, suspendu café herri frankofonoetan, café suspenso lusofonoetan, schwebender kaffee edo aufgeschobener kaffee germaniarretan, café pendiente Hispanoamerikan eta Espainian, suspended coffee herri anglosaxoietan eta planeta osoan. Eta aztura berpiztu eta sare sozialen bidez global bihurtzeraino hedatu bazen, literaturari zor zioagu, Tonino Guerraren ipuin bati eta Luciano De Crescenzen liburu bati, hain zuzen ere.

Onlineko marketinean adituek eta ekintzaileek ohitura napolitar hura negozio bihurtu zitean domeinuak erosiz, webguneak eta Twitterreko kontuak sortuz. Córdoba Río Cuarto hiria udal ordenantza baten bidez atxiki zitzaioan modari. Café pendiente / Caffè Sospeso / Coffee for all film dokumentala 2015ean ekoitzi zian koprodukzio argentinarraren, italiar eta estatubatuar batek, eta 2017an, Internet bidezko streaming zerbitzuak saltzen dituen entretenimendu enpresa estatubatuar batek erosi egin zian, noski, jakina eta prefosta.

Google maps-en bidez jakin zitekeek non dauden ekimenari lotutako taberna eta jatetxeak.

Karlos, oraindik maite al duk elkartasun anonimoaren ikurra omen den kafe esekia?

KAFE ESEKIA (IV)

Sartu naiz Europako coffeeshare webgune guztietan, eta apuntatu ditut ekimenari lotutako hiri bakoitzeko tabernen izen eta helbideak. Zarpail-zarpail jantzi, eta hasi naiz adineko kontinentean barrena bidaiatzen, zerrendako taberna bakoitzean sartu eta galdetzera ea kafe esekirik ba ote daukaten niretzat.

Please, do you have a suspended coffee for me?

Per favore, c'è un caffè sospeso qui per me?

S'il vous plaît, avez-vous un café suspendu pour moi?

Eta abar babeldar bat.

Eta guztietako bezeroek, direla hipsterrak, direla muppieak, martiztarra banintz bezala egin didate so. Eta guztietako tabernariak, beti ere ingeles mordoiloak eta gorrotoa begietan, ezetz oihukatu didate, Red Cross-eko leihatilan emango dizkidatela nahi adina suspended coffee.

ZERO ZAZPIKO GARAIETAN IDATZITAKOA

Zero zazpi aurrezenbakia markatzen den guztietan erdi irekitzen da zirrikitu bat ezdutulertzenlandiara garamatzana.

Han makina bat gerriko saldu dizkigute on-ustean antza antza besterik ez, zeren ez baitigute gerrikook urkamendien self-servicerako baino balio.

Eta ahitu dira hari komunikatzaileak, eta eten da solasa, Persiako tapizak eta Beiruteko granada-jaurtigailuak eros erosten ditzakedanetik ditudanetik nire auzoko hipermerkatuetan astean behin, arratsero, esku diru edo arma eskuan sistema baliatuz.

ZURE KEINU FALTSUAK

Egizu kontu zure keinu faltsuak ligako emaitzak bezain ongi dazaguzkiela munduko basajaun bakartuenak ere.

Harridura bidean jarri naute zenbait ezezagunek eta bidezidor lokaztuetan zendu naiz deshidrataturik.

Patua, diote, Halabeharra omen, Zoria baitaukate erlijioaren parekotzat, zientziaren osagarri.

MAITASUN STALINDARRA

Urrats berde martzial batek biren ulua urratzen du. Asfaltoa amildu egin da berde ere, martzial ere baden giza dirdaian behera, hemen eta han, badaezpadako amaiera izango duen jolasa irudikatuz.

Ez dago, ez, efektu kontrolaturik. Ustekabeak tenk egiten dio kordelari. Halabeharrak sehaskatik bertatik hautsi zuen esku korapilo bat (batera eginiko ulua), urrats berde martzial batek han eta hemen orbandua.

LOTSA

Lotsa: bost letra izuaren mugan, handik betikotasunerainoko estrata ukitu ere egiten ez dutenak.

Ez dugu deusik espero, ez gaitu zerga erotikoen zamak ikaratzen, biluza irmo bat susmatu da hitz handios bakoitzaren gibelean, hesteak ebatsi dizkidate goiz ilargigabe batean, eta zeure telefono zenbakia segundoro ez markatzearen zioaren azalpena lotsaz haragoko barrutian ediren daiteke.

Gauero bihurtzen naiz orratz. Gau ero, gau ero, gau ero.

MASOKISMOA

Setazko iskanbila nagusitu da munduaz. Loriarik gabe bizi dira gihar herdoilduak. Aieneka eman nahi nuke urte pare bat. Erosta sabatikoa, zinkurinezko atsedena. Oinazearen orbainetan ezarri omen dute faltsukeria ezezagunaren oroigarria.

Tankerik gabe.

PASAPORTERIK GABEKOARENA

Trenez tren zabilzkit preso hizki-mizkitan barrez. Kartoizko elefanteak basamortuan hurrupaka norenak egin duen jakiteke. Auskalo batek dakien baietz ala baietz. Kurloiarenak eta bost esan zizkidaten hiri ezezagun horretako harresia, lantza eskuan, jagoten ari zirenek.

Badakizu: pasaportetik ez eta.

SEMAFORORI INTSUMISIOA

Gaur ez dut bakarrik egon nahi, gaur zebrabidetu egin nahi dut espartinek, oinetakoek eta rentapercapitahandidun botek zeharka nazaten, bai eta batzuetan takoi konformagaitz psikoanalizagarriek ere.

Ni, behin-behineko zebrabide, goletarik gabeko bertute, Semafororen aurka borrokatuko naiz zeren eta antiseptiko desagerkor baiteritzot, legeak hala behartutako bertute, erran nahi baita, ez-bertute.

UBI SUNT

Udazkenak galtzadak trabeskatzen ditu, uhinen itzulerak eta eguzkien satorkeriak hostokatuz.

Gaur da etortzeko, kreditu-txartelak maginatik ateraz, bisoizko berokiaz estalirik, eta jainko parabolikoarengan sinesten du: judizio berriaren aurreko azken jainkoarengan.

ULTIMATUM JUSTIFIKATUA

Eta hustu zait berben lapikoa³. Mututasunaren ertzetik hitz egiten diot gaur gutunik ekarri ez didan mezulari berriari. Asaldatzen nauzu, besterik ezean, beste norbaiten diosalaz, zeingoio. Ene telegrama hark baialaez soila eskatu eta horra hor ahozko tiroketa: horrenbeste esplikazio, horrenbeste ñabardura. Hasia da unatzen hozkailua, purrustaka ari zaretenok nik gorroto, ehuneko bat eta erdia ados, populuaren borondate sakratua, herratsu zatzaizkit zio-zuloan sartu ez naizen honi.

Lepo eginen nuke, baina noren aurka, zeren alde, agortu da padura, leku utzi dio behakoen erasoari mintzoen etxe orratzak.

³ Zin dagit (zin dagizut, Ilaski Serrano!) hitzok ETB1eko 2020ko *Berben lapikoa* saio zoragarria baino askoz lehenago idatzi nituela.

LA DERITZON BIRUSA

Badago birus bat, mundu zabalean hedatuko ez dena, zeren ez baititu Euskal Herritik haragoko mugak gaindituko. Gure artean ari da zabaltzen, gure izaera ari da suntsitzen, gure enda ari da birrintzen gazta edo ogia izango balitz bezala, eta, halere, inor ez da arriskuaz ohartu, inor ez da asaldatu. Euskaldun batek, ahoa irekitzen duen bakoitzean, kutsatzen ditu ingurukoak, eta euskaltzainek ere ez dute gaitz horretarako sendagairik aurkitu.

Badago birus bat deLA oso larria.

FILOLOGIAREN ONURAK

Asma: hitz bat, bi esanahi. Asma asma: bi hitz, lau esanahi. Konbinatoriaren legeak literaturaren hobe beharrez. Sintagmen matxinadak leher egin du derrepente. Nahitaez batu dira sorkariak eta gaixotasunak. Odola, odola, odola: morfemen itsaso likitsa.

Ahoa josi diogu elkarri hildakoen hautsetik ihes.

GINKASAK DENA SENDATZEN DU

Zenbat ikono eraitsi diren, zenbat gorputz bihurtu diren gorpu beste ikono batzuen izenean, zenbat tenplu eraiki diren beste tenplu baten barnean matrioskak izango balira bezala.

Katxi bat ginkas edan behar dut orain, hurrup, ikono, sarraski eta triskantzarik gabeko errealitate bat irudikatuko badut.

Eta bihar, badakizu: [ikonoklastaren ajea](#).

ISIL DAITEKEENAREN MUGAK

[a. a.-ri](#), desadostasunez.

Joseba Sarrionandiari, maileguagatik (ez naiz [Bunbury](#)).

Zu eta ni maskara beti.

Lengoiak, beti jakintsu, dituen bertute handienetakoa da elipsia. Baina neurrizkoa, argia, murriztapen jakin batzuei egokitua, laburtasun edota errima efektu hutsaren aitzakian bedeinka ezin daitekeena.

Zu eta ni maskara (gara) beti: honatx elipsiaren murriztapenekin bat datorren sakoneko egitura eta, hortaz, azalekoaren interpretazio posible bakarra, zeina ez bide baitzen esloganaren egileak pretenditzen zuena.

Zu eta ni maskara (gara) beti: egileak nahi izan gabe ere, publizitatea eta poesia gurutzatu diren leku miresgarria.



GUTXIESTE MAILAK

Pentsamendu bakarraren areriooi zilegi zaigu desadostasuna adieraztea eta obligazio onartzea. Ez, ordea, bat ez gatozenari izena eta, ondorioz, izana ere ukatzea.

Perfektua ez naizenez, baina ez erabat inperfektua, inzialez eta letra xehez aipatu dut berori aurreko orrialdean. Besteren izenaren eta, ondorioz, izanaren ukazio partziala.

NOR BAI, NOR EZ

Pontifikatzen du Poetak Parnasoko pulpitutik:

“Ez da nahikoa lerroak haustea
poema on bat egiteko”.

Edo, agian:

“Ez da nahikoa
lerroak haustea
poema on bat
egiteko”.

Eta abar konbinatorio bat.

Eta nik apal-apalik erregutzen diot poeta-agiria opari diezadala abuztuaren 20an, ama nitaz erditu zen egunaren urtemuga horretan utz diezadala Mexico–United States barrier hori zeharkatzen, ez ditzala poliziak eta soldaduak bidal Río Bravora, Sonora eta Chihuahua basamortuetara, Colorado ibaira edo Behe-Kaliforniako iparraldera ni errukirik gabe tirokatzera.

Parnasoan poeta igeltsero gisa lan egitea beste asmorik ez darabilt, beren burua poetatzat daukaten hitz-metatzaile horiek barrier hori gaindi ez dezaten.

BI KOLORE BAINO EZ

*Papa, jo vull ser torero, papa, jo vull matar toro,
papa, jo vull saltar als ruedos, ay, papa, jo vull ser
torero.*

Albert Pla

Inbidia diet Euskal Herriko euskal idazleei. Izan ere, artefaktu katodikoak elkarriketatzen dituenean argitaratu zaien azken liburuaz, salbuespenak salbuespen, atzealdean itsasoa izaten dute dekoratu gisa, Kantauri itsaso zoragarria, Kresalaren kokalekua, edo mendia, euskal mendi berde eta ederren bat, Garoako Aloñaren tankerakoa.

Euskal idazle madrildar naizen honi, ordea, eszenatoki transgresorea (adjektiboa ez da nirea) proposatu zidaten elkarriketarako: Iruñeko zezen-plaza, ez mendi, ez itsaso, baina (eskerrak!) Euskal Herrian kokatua, eta ez Pozoblancon edota Rondan (eskertzen diet detailea). Tira, pentsatzen jarrita, ez diet eskertzen, ez dago-eta zer eskerturik, zeren saioa ez baita Euskal Herritik kanpo grabatzen.

Grabazioaren eguneko gauean, Iruñeko Zaldiko Maldiko kultura elkartean bi lagun jakintsurekin berriketa eta edanaldi atseginean ari nintzelarik, hara non, haietako batek zezen-plazaren erdian ageri nintzeneko [bi argazki](#) erakutsi zizkidan, Twiterren argitaratu berriak.

Egun batzuen buruan idatzi nion saioko aurkezleari mesedez, faborez eta arren eskatzeko saioaren zati nagusian nire atzean ikusten ziren barrerako kolore gorri-horiak atzeman ez zitezela trikimailuren baten bidez, hala nola, kolore aniztasuna zuri-beltzera murriztuz.

Lasai egon nintekeela erantzun zidan: “Zure atzean ikusten dena ez da bandera bat, baizik eta bi kolore, Estatuko erkidego batzuek ere euren banderetan erabiltzen dituztenak”.

Orain, hiru urte eta zenbait hilabete geroago, hogeitaz hamar hitz haiek sorrarazitako sumindura arindurik, denbora igarotzeak ematen duen hausnarketarako abagunea profitaturik, harritzen nau nola, espainiar peto-petoa izaki, ez zidaten eskatu monteraz, kapotez, eta traje distiratsuz ager nendila plazan, nola ez ninduten zezen baten aurrean jarri, txikuelinak, bular-paseak, manoletinak eta igel-saltoak (nire espezialitatea) egiteko ditudan dohainak erakuts niezazkien euskal literaturaren zaleei.

Eskertzen diet detailea.

ZUK ETA BIOK BAINO EZ

Joseba apirilaren 8an izendatu zuten euskaltzain oso. Ze poza, pentsatu zuen, apaltasunez, bueno, tira, apaltasunik gabe, uste diat merezi dudala, hobeto esanda, merezi nuela aspaldi. Bizitza osoa eman zioat euskalgintzari. Bazuan garaia, ze arraio.

Izendapena ospatzeko, biharamunean biloba Markel eraman zuen Debako Santiago hondartzara (gaztetan, euskaltzain oso izan baino zenbait hamarkada lehenago, Laparira joaten zen, aze garaiak haiek). Eguzkitakoa hondarrean arreta handiz sartu eta bilobarekin abiatu zen itsas bazterrera. Markel sartu zen aurrena uretan. Aurrena eta azkena.

- Aitite, ura dago super hotza!

Joxemari bat-batean ondoezik sentitu, konortea galdu, eta zerraldo erori zen.

Sorosleak bertaratu eta hilda zegoela egiaztatu baino ezin izan zuten egin.

Bihotzekoa, zalantza izpirik gabe.

Biharamunean, euskaltzain izendatu berriaren eskela agertu zen Euskal Herriko egunkari euskaltzale guztietan. Hiletara azaldu ziren guztiek harridura erakutsi zioten elkarri: “Beti hain osasuntsua izandako gizona hiltzea ere”.

Zuk, irakurle, eta biok baino ez dakigu zerbitzuan hil zela.

[INTERTESTUALITATEA \(III\)](#)

Heroiak ez dira suntsiezinak, negar egiten dute, sufritzen dute, mina sentitzen dute, askotan lur jota geratzen dira, ezin dira beti irmo egon, askotan nerbioak galtzen dituzte, ezin dira beti azkarrenak izan, ezin dute konponbidea

lehenengoan aurkitu, ezin dute hegan egin, askotan behea jotzen dute, mundu guztiak bezala.

Heroia: kausa noble baten alde ekintza onbera eta sakrifikatuak egiten dituenak.

Sentitzen dut, baina heroiak zarete.

PORROTA?

Saiatu nintzen behin, keinu konplizeez erdituz, eta porrot.

Saiatu nintzen beste behin, laztanez eta aizkorakadez erdituz, eta berriz ere porrot.

Baina zoriontsua nauzue lurrera erortzen diren mazoen ordeztu lurrera erortzen diren hitzak erabiliz semaforo gorria lagun.

[PORROTA? \(film laburra\)](#)

HOBE

Bigarrenez, eta gutxien uste zuenean, gonbidatu dute izkiriatzalea hizkuntza gutxitu horren literaturari buruzko telebista saiora, non haren liburu berria izango baitute hizpide. Haren prosazko estreinako lana, bazen garaia. Eta oraingo honetan aienatu zaio inbidia. Izan ere, Arriluzen (Getxo, Bizkaia) egingo baitiote elkarrizketa: bai, oraingo honetan, zezen-plaza baten ordeztasoa izango du atzealdean dekoratu gisa, Kantauri itsaso zoragarria, batere transgresorea ez den eszenatokia, eta bat egingo duena telesaio horretako elkarrizketarik gehienetakoein.

Leku hartantxe, izkiriatzaleak, duela berrogeita zazpi urte, artean izkiriatzale ez zela, baizik eta hamabi urteko ume mukizu bat (hamabi urteko ume guztienganako errespetu osoarekin esanda), Arriluzeko igeri zeharkaldian hartu zuen parte, eta, galipotez blai, ehun eta hogeigarren iritsi helmugara, Ereagako hondartzara. Eta Igeretxe hoteleko sari-banaketan, igerilari eta senitarte gehienak aretotik alde eginak zirenerako, garaikur ñimiño bat eman zioten, oraindik ere harro-harro gordetzen duena etxeko trastelekuan. Hasiko da elkarrizketa, eta elkarrizketatzaleak gehien eragin dioten izkiriatzaleen izenak aletzeko eskatzen dionean, atzerantz mugituko du aulkia izkiriatzaleak, apurtxo bat bakarrik, apurtxo bat baina uretara amiltzeko aski, aulki eta guzti.

Beheko harkaitzen kontra malkartuko da, hain zuzen ere.

Eta den-dena grabatuko du kamerak.

Inoizko audientzia handiena lortuko du saioak irudi horiei esker. Kameraduna jaitsiko da arrapaladan kai-muturreko eskaileretatik, kamera sorbaldan, eta ikusiko du (ikusiko ez ezik, zintzo-zintzo grabatu ere) paper plastifikatu bat daukala ondo-ondoan izkiriatzale prebisoreak, eta, paperean, haren azken mikrorrelatoa –argitaratu gabea– izkiriaturik, “Hobe” deritzona.

Guztiz mikro, zeren lau hitzez eta puntu batez baino ez baitago osaturik:

Hobe jaio ez banintz.

KAFE ZENTZUZ BETEA



Kafe bat aurrean duzula eserita egoteak zentzua izan dezake. Erraza da: nahikoa da ekimenari atxikiriko kafetegi atsegin batean sartu, eta, te, kafe edo beste edari edo jaki batekin batera, Zentzu bat eskatzea hamabost koroa txekiarreko prezioan.

Zentzu bat ordaintzen duzun aldiro, elkartasunezko keinu konplize bat egingo duzu: Green Doors-eko kafetegietan lanean trebatzen diren gaixo mentalei laguntzera bideratuko dira hamabost koroa horiek, eta, esker on gisa, kafe zentzuz betearen pegatina bat oparituko dizugu.

Urrun al dituzu ekimen honetako kafetegiak? Ez zara kafezalea? Ez du axolarik, zeure etxeko erosotasunetik ere lagun diezaiokezu-eta proiektuari.

Klik.

